

ARRATOI ETA SAGUEN BATZARREA.¹

Zapiron ill ezkeroz,
 Sagu ta arratoiak
 Millaka sortu eta
 Zeuden guztiz joiak,
 Zeren beste katuen
 Beldurrikan gabe
 Ziraden beren eche
 Guztiaren jabe.
 Baña illobacho bat,
 Chit mutill sendoa,
 Zapironek bazuen
 Bere antzekoa.
 Denborak egin zuen
 Guztiz eiztaria;
 Egunoro bazuen
 Lanaren saria.
 Ernaia zan, bortitza,
 Gañera katarra,
 Bere aitona bezin
 Mutiko azkarra.
 Goizean, arratsean,

Ordu guztietan,
 Usaika an zebillen
 Beti zokoetan.
 Ez zuten arratoiak
 Besteaz beldurrik,
 Ikaratzen zituen
 Onechek bakarrik;
 Zeren estu-estuan
 Arkitzen baziran,
 Beste edozeñekin
 Burrukatzen ziran,
 Eta omen zituzten,
 Ala det aditu,
 Bein baño geiagotan
 Zenbait elbarritu.
 Katar deabru ori
 Baldin iltzen balitz,
 Esaten zuten, ongi
 Ginduzkek gu anitz:
 Ikusia zegoak
 Segurki bestela,

(1) Samaniego-ren ipuia euskerara itzulia.

Ezin biziko gaituk
 Luzaro onela.
 Atera nai badegu
 Jatera zulotik,
 An diagu gañean
 Ortzak agerturik.
 Ez bagerade berriz
 Irteten lenbaitlen,
 Sarri asiko gaituk
 Elkar jaten emen.
 Oien artean zan bat
 Biziro aundia,
 Bizar luzea, eta
 Chit ille zuria;
 Urte asko zituen,
 Zan asko jakiña,
 Mairan jan izan zuen
 Lau bider iriña.
 Onek esaten die:
 Baziakiat nik
 Nola gindezkean gu
 Atera emendik;
 Baita ere biurtu,
 Zein ta dan azkarra,
 Egiten diogula

Burla eta farra.
 Bein baño geiagotan,
 Ikusi dedanaz,
 Lo egiten dik beti
 Katarrak egunaz:
 Lepoan kaskabel bat
 Ifintzearekin,
 Iges egiten erraz
 Dek soñuarekin;
 Lokarriaz lotutzen
 Ez dek gaitz lepoa,
 Zergatik nere ustez
 Pisua dik loa.
 Guztiai zitzaien
 Ongi iduritu;
 Baña iñork ez zuen
 Beretzat aditu.
 Batak esaten zuen,
 Ni nago gogorra,
 Besteak, ni itsua,
 Besteak, ni gorra.
 Edozeñek ematen
 Oi du konsejua;
 Baña ¿nork egiten du?
 Or dago kontua.

